

P. LAFITTE JAUNARI OMENALDIA

Uztaritze, 1983-V-23

PIARRES LAFITTEREN OMENEZ

Uztaritze, 1983-V-23

Bernard Dassance

Uztaritzeko Jaun Auzapeza

Euskaltzainburu Jauna,
Euskaltzain Jaunak,
Destrade deputatu Jauna,
Luberriaga Kontseilari Jeneral Jauna,
Hiriart Urruty Jaun Bikario Jenerala,
Jaun eta Andereak,

Uztaritze ederki ohoratzen duzue egun huntan, zuen ilabeteko lantegitzat hautatuz.

Lapurdiko hiri nagusi zaharrak atsegin handi eta goxo batekin, ongi etorri bero eta kartsu bat ene bozaren medioz erraiten dautzue.

Ene aita zena, Louis Dassance, zuetarik zen eta zuekin lanean ari zen. Iduri zait, ni Beñat haren semea, haren orde ari naizela Uztariztarren ongi etorria Euskaltzaineri erraiten. Gure mintzaira xaharraren amodioa bihotzean duzue laparra bezala lotua eta haren berritzen eta kasik gaztetzen ari zarezte gure nortasunaren parterik bereziena eta handiena delakotz.

Oraiko mendean sekulako lanjerrean da eta euskaldun guzien indarrak ez dira sobera izanen haren atxikitzeko eta azkartzeko.

Gorespen beraz zueri, Euskaltzain maiteak, eta jarraik sailari. Euskal Herriaren ezagutza merexiko duzue eta lortuko.

Eta orai agur berezi bat nahi diot egin, bai ene partez, bai eta Uztariztarren partez, Piarres Lafitte jaun kalonje euskaltzain handiari. Zure burrasoek Uztaritzen eman zituzten erroak: zuk zure bizi gehiena gutartean iragan duzu. Zorion bat zaiku herritarreri Uztaritze hautatua izan baita, zure alderako omenaldiaren egiteko.

Ttipi-ttipitik ezagutu zaitut, bai etxean ene aitaren ganat jiten zinelarik harekin solasetan artzeko, euskararen gora beherak aipatzen zinituztelarik,

bai eta ere semenarioan eskolemaile gisa, euskararen ederrari begiak idek'arazten zinauzkularik eta haren ganako kar batez bihotzak sustatzen.

Lafitte Jaun Kalonjea, errespetu handi batekin eta izaiten ahal dugun atxikimendu suharrenarekin erraiten dautzut, erraiten dautzugu:

Ohore zuri! lan ona egin duzu, milesker.

Eta hainitz urtez lan on horri jarraikitzeke!

P. LAFITTE-RI OMENALDIA

Uztaritzeko udaletxean, 1983, Maiatzak 23

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaun-Andreak:

Egun on digula Jainkoak!

Atsegin zait, hasteko, eskerronezko hitz bat zuri zuzentzea, Uztaritzeko auzapez jaun horri, egin diguzun ongi-etorriagatik eta omenaldi hau ospatzeko eskaini diguzun etxeagatik, ez baita nolana hiko etxea, auzapez lapurtarrak biltzen ziren herriko etxea baizik. Nekez aurki zitekeen toki hoberik Lafitte jaunaren goratarrea ospatzeko. Izan ere Lafitte jaunak, sortzez hemengo ez izanagatik, hemen, zuk gobernatzen duzun hirian du bizilekua eta hemen iragan du bere bizitzeko tarterik luzeena. Eskerrak, bada, zuri.

Louis Dassance euskaltzain zenaren semea zaitugu. Anitz urtez ezagutu nuen Louis Dassance jauna Euskaltzaindian (eta Arantzazun ere bai, inoiz). Gizon zuzena, zuzenik bada, espantu gabea, isila, lanari lotua eta euskal gauzei gogotik atxikia.

Dassance jauna hil zenean, Lafittek hari buruz Akademiaren errebistan artikulua idatzi zuen eta han dioenez, Eskuararen egunak ez zuen izan sustaizaile gartsuagorik (**Euskera**, 1976, 366). Gainera hainbeste lan argitaratu zituen *Gure Herria*-n, *Herria* kazetan, *Almanakan* eta bai **Euskera** Euskaltzaindiaren aldizkarian ere. Euskararekin batean, euskal kirolak eta kantuak maite zituen bereziki, eta balio iraunkorra duten lanak utzi dizkigu hortaz.

“Bada ez duzu zuk ere zeure arrazaz ukatu”. Halako aitaren semeak atxikimendu bera frogatzen du gaur hark sustatu zituen gauzen alde, hots, euskara eta Euskal-Herriko kulturaren alde. Ezen guztiok dakigu Lafitte oharatzearekin hori dela, oroz gain, gaur ohoratzen duguna: Euskal Herriko kultura, eta, bereziki, euskara.

Ez da hau agian paradarik hoberena edo egokiena Lafitteren bizia eta lanak xeheki kontatzen hasteko, baina zerbait esan gabe ere ezin egon. Gaur

hemen aurkeztatuko den liburu gotorrean bada zerbait, eta zerbait baino gehiago, Lafitte jaunaren biziaz, lanez eta bai irri karkailaz ere.

Inoiz gezurtatu gabeko leialtasunaz Lafitte jaunak bere bizia eskaini dio Euskal Herriko kulturari eta bereziki Euskal Herriko mintzaira eta literatura-ri. Lekuko, hor dira Seminarioan hainbeste urtez eman dituen eskolak eta moldatu duen ikasle eta jarraitzaile multzoa. Lekuko, berak prestatu dituen tresna baliosak, hala nola, Gramatika eta hiztegiak. Hiztegiak diot, ezen gutik daki Lhanderen izena daraman hiztegi hori, neurri on batean Lafitteri zor zaiola, eta berdin Aranart eta Tournier-ekin batean agertu zituen *Vocabulaire* eta *Lexique Français-Basque* direlakoak. Lekuko, Lafittek euskaraz agertu dituen liburu, artikulua, bertsu eta antzerki ugariak. Lekuko, azkenik, berak bultzatu duen euskal kazetalaritza, agertu dituen euskal idazle zaharren obrak, kritikak eta abar.

Euskaltzaindian aspaldidanik ezagutzen dut Aita Lafitte. Akademiaren bilkurei oso jarraikia izan da, hainbeste lan agertuak ditu **Euskera** Akademiaren agerkarian, eta bai gure batzarreetan irakurriak ere. Batez ere Iparraldeko berriak, hemengo euskal idazleen xehetasunak etab. ekarri izan ditu beti Akademiara. Orain ere Akademiako Gramatikaren batzordean Lafitte jauna dugu buru.

Baina Euskaltzaindiak ezin utzi dezake aipatu gabe zugandik, Lafitte jaun horrengandik, hartua duen zerbitzu bat guztiz bakana, estimatzekoa eta guztiz apartekoa. Esan nahi dut ordu txarretan —eta orduan ezagun dira lagunak— zuk eman zenien laguntza eta habe. Guztion gogoan dagoenez, Euskaltzaindiak, euskararen etorkizunaz kexu, deliberatu zuen behar zituela eskuak sartu euskara bat guztiontzat bateratua moldatze lanean; eskualdeetako euskara moldeak arbuiatu gabe, noski, baina horien gaintetik, guztiok elkartuko gintuzkeen tresna horren langintzan. Orduan gure artean liskarrak sortu ziren. Eta kinka larri hartan zure eta Iparraldeko euskaltzainen laguntzak salbatu zuen Euskaltzaindia. Eta hori bat ere abarrosik egin gabe, espantu gabe, bilkurei jarraikiak izanik. Mila esker, jaunak!

Joan den urteko Maiatzaren 27an Euskal Herriko Unibertsitateak, Lafitte jaunaren merezimenduak gogoan edukiz, “doctor honoris causa” izendatu zuen Lafitte. Eta hortik aitzakia hartuz, Euskaltzaindiak erabaki zuen liburu bat Aita Lafitteren ohoretan ateratzea, euskara eta euskal kulturaren munduan dabilzan jakintsu, idazle eta olerkariet bertan parte hartzen zutelarik. Hirutan hogoi jaunek hartu dute parte liburu honetan, ez Euskal Herrikoek bakarrik, baina Frantzia, Espainia, Alemania, USA, Errusia, Japon eta ez dakit nik zenbat erresumatakok. Baina Haritschelhar jaunak emango digu hortaz xehetasun gehiago.

Eta azkenik, fede handiko gizona gure Lafitte. 1974ean liburuska lirain bat agertu zuen: *Idek eta zabal gogo-bihotzak*. Agian beste inon baino hobe-kiago agertzen du hor bere izpirituairen plegurik barrenkorrena. Irakiten ari den mundu honetan, nola ihardoki behar du giristinoak? Hau da Lafitteren

galdera, eta galdera honi ihardesten dio liburuan. Berak badaki, noski, egungo ganbiamenduetan dena ez dela irabazte, galtze handiak ere gertatzen direla. Zer jokaera edo planta hartu? Mundu berri batetara goazela, bistan da. Orain bada, Lafitte jaunak agertzen digun ikuspena funtsean arraia da, eta kristau fedean oinarritua. Eta ez da arraia, optimismo zozo batean kiribildua bizi delako, ez. Zangoak lurgainean ditu, eta begiak erne, XX. mende hondar honetako mehatxuak ez ikusteko. Ikusten ditu, eta bai zurikeriarik gabe salatzen ere, baina oroz gain ikuskera arrai batek du aginpidea. Badaki eta, Norbaitek ibilarazten duela mundua, gizonen jaidura eta grinen gainetik. Lafitteren aburuz, bada, girstinoek ezdute uzkur eta beldurti izan behar. Ausartak, bai, baina arriskua maitatu gabe. Ez dezagun Jainkotzat har ez dirua, ez beste ezer. Eta sar dezagun gogoan —dio berak— Kristo ez zela etorri gizon egiteko, gizona salbatzeko baizik. Muin handiko oharpena hau ere.

Zuk, Lafitte, Broussain, Barbier, Hiriart-Urruty, Etxepare mirikua, Oxobi, Zerbitzari, Saint-Pierregandik argizuzia hartu zenuen, eta bizirik atxiki eta hurrengo belaunaldiari pasatu. Nork daki, zu gabe, ez ote zen iraungi eta betiko hilko? Eskerrik asko Euskal Herriaren izenean. Eta argizuziak jarrai dezala argitan gure ondotik ere. Halabiz.

PIARRES LAFITTERI OMENALDIA

Uztaritze, 1983-V-23

Jean Haritschelhar

Euskaltzainburu ordea

Jaun andereak,

Mintzaldi hunen hastapenean, nahi nituzke agurtu hunat etorri diren guziak, bainan aipamen berezi bat banuke, Dassance Jauna Uztaritzeko auzapezarentzat, ongi etorri hain goxoa egin daukulakotz.

Gure artean ere ditugu, Jean Pierre Destrade deputatua, André Luberriaga kontseilari jenerala, Aizarna Gipuzkoako deputatu nagusia, Goio Monreal Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea eta Olaizola jauna Euskal gobernuaren izenean etorria. Nere agurrik beroena eskaintzen deiet.

Ohidura zaharra da Ipar Euskal Herrian makila baten eskaintea omenaldi bat egiten zaiolarik norbaiti. Jadanik 1853 an, Antoine d'Abbadie-k sortu zituelarik euskal bestak Urruñan, saritzat eman zituen olerkariendako bai urrezko untza, bai ere ohorezko makila. Ez dut uste berak asmatu rikako gauza zela ohorezko makilaren eskaintzea, bainan jadanik ezagutua zen ohidura bat.

Geroztik nor nahiri emaiten zaio makila bat. Ez dut ukatzen eskaintza eder bat dela, amodioz landua duen ofiziale baten lan bikaina, ederki apaindua. Bainan ez daukuia aspaldi huntan Lafittek-edo hobeki erran Ithurraldek—Lafitten adixkide mina dudarik gabe— salaturik eskuratu zuela makila bat.

Entzun dezagun zer dion berak:

Begiztatu nuen aspaldi mendian
Mizpir'ondo xuxen bat sasien erdian;
Handitzerat utzi dut eta harekila
Aurten egin dut nere euskaldun makila.

* * *

Pertsuz pertsu, kantatzen ditu makilaren laudorioak eta azkenean, erakusten dauku zer atxikimendu zor dion biziaren azken eremuetaaino laguntzaile duen adixkideari.

Begiztatu nuen aspaldi mendian
 Mizpir'ondo xuxen bat sasien erdian
 Handitzerat utzi dut eta harekila
 Hemen egin dut nere Zeruko makila.

Jadanik Lurreko eta Zeruko euskaldun makila duenari ez zaio beste bat eskaini behar. Bada hoberik.

Duela urte bat Euskaltzaindiak deliberatu zuen eginen zaizula omenaldi bat. Alabainan nahi zuen ohoratu Euskaltzaina, euskaltzalea, bere bizi guzian euskararen alde borrokatu den idazlea, gramatika ikertzalea, hiztegi egilea, literatura argitzailea, dizipulu edo ikasle sortzailea eta sustatzailea.

Badaki Euskaltzaindiak ez zirela ohorez gose, bainan gaur entzuten diren laudorioak ez dira lausenguak, ez dira alegiak, egiak baizik.

Hor daude lekuko, egia dariotela ahotik euskalzàle guziak, heien erakasle eta maisu izan zirela goraki aitortzen dutela.

Lore sortaren artetik hautatzen ditut zonbeit:

Hil aintzin Anai Berriotxoak (Nicolás Alzola Gerediagak) azken borondatez, zituen indar poxiak bildurik, igortzen zion Juan San Martin-i zure omenez egin zuen lana eta idazten zion:

“Juanito: Piarres Lafitte omenaldirako: Makalik nabil eta ezin dut gehiago idatzi”. Biharamunean pausatzen zen.

Mitxelenak ere argi eta garbi aipatzen ditu irakasle eta adiskidea (irakasle izan bainuen luzaroan behiala azkenik ezagutu arte).

Nihaurek, duela orai sei urte abantxu, Euskaltzaleen Biltzarrak Baigorriin egin nauzun omenaldian nion:

“Zor dautzut, Jauna, dudan euskararen amodioa, hitz batez zor dautzut ene euskaltasuna. Hortakotz bihotzaren zolatik: Milesker Jauna!”.

Arana Martijak deitzen zaitu “el polifacético Pierre Lafitte”, ez Janus bezala bi aurpegitarakoa bainan aurpegi hanizetakoa; baiteramazkitzu gramatika aurpegia, hiztegi aurpegia, literatur begitartea, idazle bisaia eta beste...

Gazteagoak direnek ere salatzen dituzte zure ganako zorrak:

M.^a José Azurmendik: nuestro gran estudioso del euskara Pierre Lafitte.

Endrike Knörr-ek: euskalari eta “euskalzale gailen” eman duen etsenpluagatik.

Eta Jacques Allières-ek euskal aditza presentatzen duelarik:

Elle est directement inspirée de la présentation qu'en a faite le chanoine Lafitte dans sa Grammaire basque, mon livre de chevet d'adolescent où j'ai appris à peu près tout ce que je sais sur le basque, sous sa forme “navarro labourdine” du moins.

Beraz Euskaltzaindiaren deiari erantzun diotenak 59 dira. Eta behar bada gehiago izanen ziren ez baginu epe labur bat ezarri. Orotarat 60 artikulua eta 923 orrialdeko liburu gotor bat. Bazena zuretzat eskaintza hoberik? Ez dut uste. Eta berriz oixtian aipatuari noa. Makila bat edo beste eskaintza bat egiten zaiolarik norbaiti, eskaintzen zaio ofiziale batek eginikako lana-amodiozko lana dudarik gabe-bainan dirutan erosia.

Liburu hunekin aldiz, idazle bakotzak (eta errepikatzen dut 59 direla) eskaintzen dautzu bere buruzko lana, egiten dituen ikerketen fruitua, oren luzeak eta asko buru hauste pasatu dituela artikulua mamitsu baten lantzeko.

Iker 2 deitzen da liburua. Lehena agertu zen duela orai urte bat eta erdi, euskalarien nazioarteko jardunaldien aktak azaltzen zituela: 545 orrialdeko liburu eder bat.

Erran dudan bezala zure omenaldirako liburuak 923 orrialde dauzka, erakusten baitauzku zertan diren ez bakarrik Euskal Herrian bainan mundu guzian euskal ikerketak.

Bada hortan orotarik, bainan leku gehiena dauka gramatikak: 34 artikulurekin.

Aditzaz 4, hiztegiak 1, morfo sintaxiaz 6, elebitasunaz 2, onomaztikaz 5, etimologiaz 4, euskalkietaz 6, erran zaharretaz 1, liturgia eta bertsogintzaz 3, XVIII eta XIXmendeko euskaraz 4, bibliografiak 2.

Literaturak ere bere eremua badauka 6 artikulurekin, seiak ipar Euskal Herriko ikertzaleetarik etorriak. Lafitte eta Lafitten obra aipatzen dute 5 idazleek.

Eta gero, nahas mahas, ezartzen ditut besteak, edergintzaz, hixtoriaz, etnologiaz ari direnak, gutunak azaltzen dituztenak, ahantzi gabe gure olerkariak Gandiaga eta Iratzeder.

“Mélanges” deiturikako liburua da *Iker 2*, edozoin unibertsitatek bere kide bati eskaintzen dion bezalakoa, lagunkideak elgarretaratzen direlarik omenaldi baten egiteko.

Liburu honekin errege bidea hartu du Euskaltzaindiak, edo oraiko hiztegia baliatuz, autopista, bide zabaletan zabalena. Alabainan, erakusten du liburuak zer lan baliosak egiten diren Euskaltzaindian, zer ikerketa motak hizkuntzari buruz, sekulan ahantzi gabe euskalkiak.

Nork, gure Euskal Herrian, hobeki aztertzen ditu euskalkiak, ez balinbada Euskaltzaindia eta hor dago *Iker 2* lekuko.

Nork hobeki, gure Euskal Herrian, lantzen ditu eta ikertzen gramatika eta hiztegia, halaber literatura, ez balinbada Euskaltzaindia, eta hor dago *Iker 2* lekuko.

Nork hobeki, gure Euskal Herrian, biltzen ditu mundu guziko euskalariak gure hizkuntzaren inguruan, ez balinbada Euskaltzaindia eta hor daude *Iker 1* eta *Iker 2* lekuko.

Egia erran, *Iker 2* hau 6 hizkuntzatan agertzen da: Euskarak toki lehena dauka, erdia baino gehiago euskaraz idatzia baita, eta bestek dauzkatela españolak 15 lan, frantsesak 12, errusoak 2, alemanak eta ingelesak bat bakotzak.

Duela hamabost hogoi bat urte ez ginituen aurkituko hainbeste unibertsitateko erakaslerik: hor daude agertzen direnak Gasteiz, Bilbao, Donostia eta Iruña, Salamanka ere, Frantziakoak Nancy, Metz, Tolosa, Pau, Bordele eta Bordelek duen umea Baionan, eta gero Liverpool, Tbilissi, Mosku, Autrixiako Viena, Alemanian Tübingen.

Orotarat 17 euskaltzain osok eta 24 urgazlek parte hartu dute omenaldi huntan. Halere nahi nuke azpimarkatu Ipar Euskal Herriko ikertzaleek hartu duten tokia, bereziki berrikitan sortu den C. N. R. S.eko E. R. A. 1052-ko kideak. Ikus daiteke Lafittek badituela segitzaileak.

Eskerrak zor diozkagu Iruñako Aranzadi irarkolari lan ona egin duela-kotz liburu hunen inprimatzen. Har dezatela merezi dutena bai zuzendariek, bai langileek.

Ez nuke mintzaldi hau bururatu nahi eskerrak bihurtu gabe Gipuzkoako Foru diputazioari eta hemen dagoen Aizarna diputatu nagusiari. Zuri esker Jauna, eta zure lagun kideeri esker, agertzen da Piarres Lafitteen omendaldira-ko liburu eder hau. Erakusten duzue nola laguntzen eta sustatzen dituzuen euskara, euskal kultura, euskal ikerketak. Har bezate bestek zuetan etsenplu.

Eta olerkariak azken hitza bere ukan dezan, irakurtuko dautzuet, hemen dagon andereño batek, Mari Jane Minaberri-k Aita Lafitti eskaintzen dion olerkia.

Lafitte jaun kalonjeari

Euskal Herriko mendia
Haritez da apaindua.
Itzal haundiko zuhaitza,
Neurri gabeko jakintza,
Zabal ta suhar bihotza,
Zu zira gure haritza.

Euskal Herriko mendiak
Harrokan ditu erroak.
Sort dadin mundu berria,
Aska gure aberria,
Bizi guzia borroka,
Zu zira gure harroka.

Euskal Herriko mendiak
Ez daki nungo urxoak
Hazkurri haren ezkurak
Hazi dituen umeak.
Zuri esker zonbat lagun
Euskal- seme dira egun?

Bihotzez beti zuri so,
Agurtzen zitut, aitaso.

IKER 2 ETA ESKERRIK ASKO

Uztaritze, 1983-V-23 ()*

Piarres Lafitte

P. Lafitte jaunaren amaiera hitzak

Aditzale adixkideak, ohore handi bat zait zuen guzieren aintzinean agertzea egungo besta hunen karietarat. Atsegin dut, zeren denak baitzarete euskal kulturaren aldekoak eta euskaltzale adituak. Orori doakizuela ene bihotzetikako agurra.

Jadanik txunditua eta aztoratua bezala nago bai jaun auzapezak, bai Aita Villasantek, bai Haritschelhar euskaltzain buru ordeak egin dauzkidaten goresmenez. Banuke urguluz hanpatzeko aski estakuru, ez banaki nehork bezain ontsa neure mugen eta eskasen berri. Eskerrak diozkatet halere, beren onezia zabala erakutsi dautatelakotz.

Berdin parada huntaz balia, kazeta eta irrati batzuek gorai patu naute eta karta batzu ere eskuratu ditut ele goxoz bete naute. Jakin bezate estimatzen dutala heien guzieren ikustatea.

Nahi nuke azpi-markatu atsegin berezi bat zaitala Uztaritzen iragaitzen baita egungo ospekunde hau, ene burua Uztariztar senditzen baitut.

Ene ama zena Uztaritzen sortua zen, eta nihaur Luhuson sorturik ere, ez nintzen han egon, ama eri handi izanez eta Senpereko amañotarik landa Uztaritzeko Buxtingorin eman nuen ere haur ttipi denbora ene apitxi eta amixirekin. Ene ama-eskola bortz garren urteraino orai giren gaztelu huntan berean zen goitirako eskuin aldean. Duguine anderea zen gure errietsa.

Oroit naiz oraino kanpo aldean biltzen ginela muttiko eta nexkak eta eskolan sartzeko, bi lerrotan emaiten ginela eta kantuz egiten ginuela sartzea. Erdarazko kantu bat zen. Ez banintz erlastua, kantatzen ahal naukezue. Hona zein ziren errepika eta bi koplak:

(*) P. Lafitteren hitzaldi hau, Maite Mendiburuk transkribatu du.

Oui, marchons, marchons, marchons,
entrons tous à l'école
Oui, marchons, marchons, marchons
courons à nos leçons!

A nos leçons soyons dociles,
Écoutons bien ce qu'on nous dit,
Et si parfois c'est difficile,
Soyons vaillants, soyons hardis!

Lisons, lisons avec constance,
Soignons, soignons, tous nos devoirs,
Rien n'est plus beau que la Science,
Rien n'est plus doux que le Savoir!

Ez dut uste orduan jakitatearen ederraz eta gozoaz axola handirik baginukeen. Bainan nork jakin hitz mixteriozko horiek ez ote zatzaizkitan azpi-oharmenera jautsi eta han sustraitu! Beharbada luzara haurreko kantu horrek piztu zautan goiz danik hartu nauen ikasteko gose gorria.

Baditake beraz Duguine andereari zor diotan parte segurik egun hemen izaita.

Egia erran, izan dut Uztaritzen geroxago euskararen erakusle hoberik. Hogeita-bi urtez Hiriberrian ukan dut bil-etxe eta ihes-leku: Anaiz Olhagaray andereak, ene ama zenaren oroitzapenetan seme bat bezala artatu ninduen, eta Milafrangako euskalki berezia maisuki bazerabilkan.

Uztaritzen apez euskalzale andana batek sustatu naute euskaldungoan. Aipa dezazket Blaise Adéma, Michel Iriart, Blazy.

Laikoetan nola ez izenda Luis Dassanoe euskalzale buru famatua. Souberbielle miriku eta juje bi anaiak, gaztegoetan ezin ahantz dezazket Uztaritzen Aintzina kazeta sortu ginuen urtetako lagun suharrak: Amocain, Jean Dubosq, Labéguerie bi anaiak eta abar. Berrogoi-ta-hamabortz urte huntan bainago Uztaritzeko Semenarioran, hor ere ukan ditut laguntzale ederrak: Matthieu, Garat, Aranart, Lassalle, L. Pochelu, Bidondo, P. Narbaitz, P. Etchemendi, A. Lamarque, Bascans...

Badut naski nahikoa erranik adiarazteko zergatik hain dohatsu naizen Uztaritze huntan egin baitzait liburu eder hunen eskaintza.

Ordu bide da zerbait erran diezazuedan eskaini dautaten liburu gotor hunek egin-arazi dauzkitan gogoetez.

Haritschelhar jaunak hartaz eman daukitzuen xehetasun zenbait errepi-katuko ditudala badut beldurra. Otoi barka dezadazue.

Obra hunek badauzka 923 orrialdetan, 28 lan euskaraz, 14 españolez, 14 frantsesez, biga rusoz, batto alemanez, bertze bat inglesez.

Hastapenean da Alfontso Irigoyen jaunak eskuz eginikako ene potret bat. Hiru eskaintza. Ene biziari buruzko zenbait puntu. Ene idazkien titulu zerrenda bat eta Iratzederen olerki hunkigarri bat.

Gaiak sailka daitezke hiru zatitan. Zati handiena euskarari dagokio: lan andana batek aditza dute ikertzen; zenbaitek hiztegia, leku-izenak, ahaide-izenak, joskera puntu batzu, euskararen usaia lehen eta orain, eratzik-hitz batzu, musika eta euskera ritmoen kidetasuna, zenbait euskalkiren berezitasunak.

Bertze zati batek badauzka literatura gaiak: idatzi zahar batzu ezagutze-rat emanak zaizku; bertsolaritza eta olerkaritza aipu dira, idazle zenbaiten hizkera aztertua.

Hirugarren zati batean arras bertzelako lan batzu ezar daitezke: frantses literaturari buruz, irarkola bati buruz, dialektologiari edo ixtoriari dagozkien ixtorio orokor batzu eta abar.

Lan horiek guziak arras berriak dira, ederki idatziak eta jakitate-ekarleak. Unibersitario kategorikoak.

Aintzinamendu handi bat salatzen dute eta euskal ikasgoak goiti ari direlako seinale sustatzaile bat da.

Ez zait itsusi ikertzale eta jakintsun horien guzienganik etorri baitzait liburu balios hau. Eskerrik minenak diozkatet orori batean egun, bakotxari hitz bat igorriko diotan artino.

Zerbaitek nau gehienik hunkitu azken denbora hauetan: euskalari gazte multzo bat heldu zaizkigula, kar berriz, begi berriz, lan-molde berriz mintzaiaren ikertzerat, ez gaingiroki, bainan sakonki eta zabalki. Primadera eder horri ohartu nitzaió ez bakarrik liburu hau irakurtzean, bainan berdin tesis edo gramatika-txosten batzu iragaitean, egileak izan ditzen gizon ala emazte.

Aurrerapen horrek gogoan eman daut San Lukas-ek aipatzen duen Simeon xaharra. Agure horrek Jesus Israelen salbatzaile beharra zela igarri zuen pondutik erran zion Jainkoari "oraitik zure ganat biltzen ahal nauzu!".

Aditzale maiteak, nik ere otoitz bertsuaren egitera nago: "Jainko jauna, ene aldia egintxea daukat. Zure ondorat biltzen ahal nauzu. Ondokoak hor ikusten ditut hasi nuen euskal ildoari lotuak! Heiek iduri zait bururatuko dutela euskal kulturaren salbamendua.

Gora gazteak! Hala-biz!